

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2018-2020 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeko onespena

Zigoitiko Udalak, 2020ko urtarrilaren 23an egindako ohiko osoko bilkuran, 2018-2020 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea adostu zuen.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

2018-2020 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa

1. OHAR OROKORRAK:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren zioen azalpenetan jasotakoaren arabera, sektore publikoaren finantza jardueraren zati garrantzitsua dirulaguntzen bitartez bideratzen da, betiere pertsona eta erakunde publiko eta pribatuen gizarte eta ekonomia eskaerei erantzun egokia emateko, finantza laguntzako neurriak baliatuz.

Ikuspegi ekonomikotik, dirulaguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsua dira eta, beraz, aurrekontu politikaren jarraibideei lotu behar zaizkie; izan ere, aurrekontu politika gidatzen duten irizpideak honakoak dira: aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta hazkunde ekonomikoa.

38/2003 Legeak ezartzen du, hobekuntza horren kudeaketa osagai eta lanabes gisa, administrazio publiko bakoitzak DPE dirulaguntzen plan estrategikoa prestatzeko betebeharra duela, lortu nahi diren helburuak eta eraginak aurreikusitako kostuekin eta finantzazioarekin erlazionatzea ahalbidetuz, betiere dirulaguntzen bidez estaliko diren premia publikoak baliabide eskuragarrien arabera egokitzeko eta hori guztia dirulaguntzak eman aurretik.

Gainera, legeak jarraipen sistema bat ezartzen du helburuen kontrol eta ebaluazioaren bidez, lortu nahi diren helburuak eskuratzeko mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabideen mailaren arabera egokiak ez diren dirulaguntzen ildo horiek efikaz eta efizienteagoak diren beste batzuen ordez aldatzeko edo ordeztzeko edo, hala badagokio, ezabatzeko.

Dirulaguntzen plan estrategikoa egiteko justifikazioak oinarritzat hartzen ditu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren zioen azalpena (aurrerantzean DLO) eta, zehatzago, aipatutako arau horren 8. artikulua ezarritako mandatua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegi Orokorra (aurrerantzean DAO) onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikulua eta hurrengoak, eta Gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren aldeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

DLOren 8.1 artikulua honako hau dio: "Administrazioko organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea".

DLOren 8. artikulua hori garatu dute uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako DLOren arautegiaren 10.etik 15.era arteko artikuluek. Gauzak horrela, horiek ezartzen dute zeintzuk izango diren DPEen printzipio gidariak, eremua eta edukia eta zeinena den plana onesteko eta haren jarraipena egiteko eskumena. DLOren arautegi orokorraren 11. artikulua ezarritakoari jarraikiz, plan estrategikoak ezinbestean egokitu beharko zaizkie ekitaldi bakoitzari

begira politika ekonomikoko eta aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzeko ezarritako murrizketei. Hiru urteko indarraldia duen epe baterako ezarpenak jasoko ditu, baldin eta ukitutako sektorearen izaera berezia dela-eta komenigarria ez bada iraupen desberdineko plan estrategiko bat ezartzea.

Nabarmendu beharra dago, DPEen garrantziari dagokionez, Auzitegi Gorenak ezarritako jurisprudentzia berriak (zehatzago, 2013ko apirilaren 16ko epaia eta 2012ko ekainaren 26koa eta abenduaren 4koa) arrazoitzen duela DLOren 8.1. artikulua aipatutako dirulaguntzen plan estrategikoak "edozein dirulaguntza ezarri aurretikoak direla eta funtsezko betekizuna direla, eta, hori betetzeko kanpotik gauzatu eta plan estrategiko gisa identifikatzeko edukia jaso behar du, 8. artikulua 1. idatz zatian aipatutakoa islatu behar baitu".

Aurrekoarekin bat etorriz, DPE prestatu beharko da dirulaguntzak emateko edozein proposamen egin aurretik eta, halaber, udal dirulaguntzen plan estrategikoan jaso beharko dira planteatzen diren proposamenak.

Gainera, DPEk izaera programatikoa bai baina arauzko lerrunik ez duen kudeaketa tresna denez gero, ez du zuzeneko eraginik dirulaguntzen onuradun potentzialen eremuan, eta, modu horretan ez dei ez eskubiderik ez betebeharririk sorrarazten. Haren eraginkortasuna lotuko zaio dirulaguntzen ildo desberdinak abian jartzeari, betiere, beste baldintzatzaile batzuen artean, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak aintzakotzat hartuz. Hori dela eta, plan honek ezarritako dirulaguntzen zinezko ezarpenari begira, udal aurrekontuetan behar diren zainpeketak egin eta horiek emateko oinarri arautzaileak onartu beharko dira edo dagokion agiria.

Haren barne eraginek, ordea, lotura dakarkite udal korporazioari, bi zentzutan. Batetik, planean ezarrita ez dauden ekintza ildoetarako dirulaguntzen emakida debekatuz. Bestetik, ezarpenen aldean izan daitezkeen desbideraketak arrazoitze bidezko betebeharrak zehatza ezarritik, betiere Dirulaguntzei buruzko Legearen Arautegiaren 15. artikulua ezarritakoaren arabera jarraipen txostenetatik sor daitezkeen aldaketak kalterik egin gabe.

2. PLANAREN EDUKIA:

Plan estrategikoek honako edukia izango dute:

a) Helburu estrategikoak; planaren indarraldian ekintza instituzionalaren bidez lortu nahi diren eragina eta inpaktua azalduko dituzte eta horiek ezinbestean lotu behar zaizkie aurrekontu programetan ezarritako helburuei.

b) Jarduketa plana zehazten duten dirulaguntza ildoak. Dirulaguntza ildo bakoitzari begira, honako alderdi hauek azaldu beharko dira:

1. Ukitutako eskumen atalak eta dirulaguntzak zuzentzen zaizkien sektoreak.

2. Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak.

3. Lortzeko beharrezko epea.

4. Egiteko aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak; horietan guztietan zehaztu beharko dira herri administrazioen, Europar Batasunaren eta sustapen ekintzetan parte hartzen duten organo publiko eta pribatuaren ekarriak, bai eta, osagarritasunaren printzipioa kontuan hartuz, dirulaguntzen onuradunei dagozkienak ere.

5. Ekintza plana; bertan zehaztuko dira planean identifikatutako dirulaguntza ildoak praktikan jartzeko mekanismoak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 9. artikuluan emakidarako aipatutako oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko ildoak mugatuko dira, egutegia ezarriko da eta, hala badagokio, kudeaketari begira herri administrazioen arteko koordinaziorako irizpideak jasoko dira.

c) Ezarritako dirulaguntza ildoek aplikatu behar duten etengabeko jarraipen eta ebaluazio araubidea. Ondorio horietarako, dirulaguntza ildo bakoitzerako zehaztu behar da planaren helburuekin erlazionatutako adierazleen multzoa; izan ere, jarraipenaren arduradunek hori aldizkaaldizka jasota, jakin behar dute zein den egoera eta zeintzuk lortutako aurrerapenak aldeztu aurretik zehaztutako helburuak betetzerakoan.

d) Aurreko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak, egindako txostenen edukia jakinarazteko. Dirulaguntza ildo desberdinen ebaluazio txostenak plan estrategikoko berria onartzeko espedientearen dokumentazioan gehitu behar dira.

Plan estrategikokoaren edukia honako honetara mugatu behar da: helburuei, kostuei eta finantzazio iturriei buruzko azalpen memoria bat egitera, hain zuzen. Hori honako kasu hauetan:

a) Zuzenean emandako dirulaguntzak, betiere Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 22.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Ministerio saileko tituluak modu arrazoituan zehaztutako dirulaguntzak, betiere esku hartze publikoko lanabes gisa duten garrantzi ekonomiko edo sozial txikia kontuan hartuz.

Zigoitiko Udaleko 2018-2020 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa "2018-2020 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa" izeneko eranskinean jaso da, eta bertan dirulaguntza bakoitzeko honako hau zehaztu da:

- Helburu estrategikoak.
- Ukitutako eskumen areak.
- Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak.
- Denbora tarteak / Lortzeko beharrezko epeak.
- Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak.
- Ekintza plana.
- Jarraipen eta ebaluazio araubidea.
- Araubidea / Emakida modalitatea.
- Onuradunak / Hartzaileak.
- Zinezko berdintasunari begirako jarduketan aurreikuspena.
- Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa.

3. ONARTZEKO ESKUMENAK:

Dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeko organo eskuduna udalbatza da, dirulaguntzen edo sustapenaren jardueraren planifikazio estrategikokoaren eta kudeaketa ekonomikokoaren tresna den aldetik, betiere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak bere 22.2. artikuluen e) letran ezarritakoaren arabera.

4. DENBORA TARTEA, INDARRALDIA ETA EGUNERAKETA:

Plan honek hiru urteko indarraldia izango du, honako hau barne; horrenbestez, 2018-2020 aldia hartuko du. Hala ere, urtero, jarraipen txostenak ikusita, eta eskuragarri dagoen aurrekontua kontuan hartuz, dirulaguntza ildoak aldatu, ordeztu edo ezabatu behar dira. Ildo bakoitzaren barnean edukiaren edozein alderdi eguneratu edo aldatu behar da, bai helburuen lorpenari buruz edo inbertitutako baliabideen egokitzapenari buruz egindako jarraipen txostenen emaitzengatik, bai behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiengatik.

Jakina denez, aurrekontu aldarazpenik egin nahi izanez gero DPE honetan ezarrita ez dauden dirulaguntza ildoak jasotzeko, aldeztu aurretik edo aldi berean plan estrategikoa bera aldatu behar da litzateke.

Jasotako dirulaguntza ildoak aldatzeari dagokionez, ez litzateke beharrezkoa izango DPE aldaraztea, baldin eta xedea bada ildoaren dirulaguntzari emandako zenbatekoa aldatzea eta ildoaren gainerako osagaiek aldaketarik gabe jarraitzen badute; hori guztia behar bezala egiaztatu beharko da espedientean.

5. JARDUERA ILDO ESTRATEGIKOAK:

Plan estrategiko honetan bildutako jarduketa ildo estrategikoak udal gobernuko atalen arabera sailkatu dira:

- Alkatetza, Ekonomia, Hirigintza eta Funtzio Publikoko Area.
- Euskara, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Area.
- Parte hartze, Mendi, Abeltzaintza eta Nekazaritza Area.
- Berdintasun, Gizarte Ongizate eta Gazteria Area.

6. DPE-REN KONTROLA ETA JARRAIPENA ETA GARDENTASUNA:

A) KONTROLA ETA JARRAIPENA:

Zigoitiko Udalaren dirulaguntzen plan estrategiko honen kontrol eta jarraipena urtero egingo da, bi alderdi jorratuz:

Emandako dirulaguntzen kontrol ekonomiko eta finantzarioa; alderdi hori Zigoitiko Udalaren Kontu Hartzailetzak beteko du eta indarreko legeriak ezarri bezala egingo da, betiere kontu hartzailetzak orokorrak zehaztutako prozedurak betez.

Planaren kontrol eta jarraipena. Plan estrategiko hau berrikusi behar da, honakoak egiteko:

- Indarraldia galdu duten edo helburuak betetzeko efikazak ez diren dirulaguntza ildoak aldatzeko edo eguneratzeko.
- Mantendu direnen zenbatekoak eguneratzeko.
- Aldez aurretik ezarritako helburuak bete nahian beharrezkotzat jotzen diren jarduketa ildo berriak txertatzeko.

Jarraipena Alkatetzak edo udal gobernuko atalen artean hala jaso duen zinegotzi atal ardura-dunak egingo du; horretarako memoria justifikagarria igorriko da Kontuen Informazio Batzorde Berezira, Osoko Bilkurako Gaiak Prestatzeko Batzordera eta Gobernuaren Kudeaketa Informazio Batzordera, dirulaguntza bakoitzaren jarraipen araubidearen zehaztasunak azalduz.

B) GARDENTASUNA:

Gardentasunaren printzipioa betetze aldera, deialdiak eta emakida erabakiak udal webgunean argitaratuko dira, baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean ere, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta pertsona onuraduna, emandako kopurua eta dirulaguntza jasoko duen proiektua edo jarduera adieraziko dira.

ERANSKINA
2018-2020 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETZEA ERAGITEN DUTEN KONTZEJUEN OBRAK SUSTATZEA ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO AREA	
Helburu estrategikoak	— Udalerriko kontzejuak emandako zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea sustatzea. — Herrietako zerbitzuen prestazioen berdintasuna sustatzea, populazio guztia eragitea ongizatea bideratuz.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2. a) b) c) d) k) eta m) artikulua
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	— Helburua: Kontzejuarekin kolaboratzea zerbitzu publikoetarako azpiegitura eta ekipamenduetarako obrak gastua finantzatzeko. — Eraginak: udal azpiegitura eta ekipamenduak hobetzea.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: 170.000 euro 2019: 170.000 euro 2020: 175.000 euro Obrak kostuaren ehuneko 50 finantzatuko da gehienez, 75.000 euroko mugarekin; nekazaritza erabilerako bideetan obrak eginez gero, gehienez kostuaren ehuneko 40 finantzatuko da, 20.000 euroko mugarekin. Obren obra eta zerbitzuen foru planaren eta obra txikien programen kofinantzaketak jasotzea aurreikusi da. Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Urteko deialdia egingo da.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Planaren indarraldia bukatutakoan, memoria bat egin beharko da; memorian kontzejuak emandako zerbitzu publikoak eta dirulaguntzek kalitatea hobetzen izan duten eragina aztertuko da, eta beharizanak antzemango dira. Zerbitzuak eta kalitateak herriak aztertuko dira.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka
Onuradunak / Hartzaileak	Zigoitiko Kontzejuak
Zineko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	943.734.000

ETXEBIZITZA GISA ERABILTZEKO ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZA ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO AREA	
Helburu estrategikoak	— Existitzen den hiri eta egoitza ondareari eustea eta hobetzea. — Landa eta hiri ingurunea zaintzea eta hobetzea.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.a) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	— Helburua: egoitza erabilerako ez diren eraikinak birgaitzeko obrak finantzatzea, eskatzailearen etxebizitza erabilera nagusi gisa erabiltzeko. — Eraginak: udalerriko hiriguneetan tradizionalak existitu diren nekazaritza eraikinak zaintzea eta hobetzea; modu funtzionalean erabiltzen ez direnez, etxebizitza gisa erabiltzeko aldatzea komeni da, eraistea saihesteko.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: 5000 euro 2019: 5000 euro 2020: 2000 euro Diruz lagun daitezkeen obraren betearazpen materialaren aurrekontuaren ehuneko 1,3 finantzatuko da. Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Lehen okupazioko eskaera aurkeztu aurretik, eraikinen jabe diren pertsona fisikoek dirulaguntza eskatu beharko dute. Hirigintza planeamenduan eraikin nagusi gisa kalifikatutako eraikinak baino ez dira diruz lagunduko, 50 urtetik gora badituzte.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Dirulaguntza birgaitutako etxebizitzaren jabeak jasoko du, birgaitze obrak bukatu ondoren, fakultatiboak sinatutako obra ziurtagiriaren aurretik; nolabait ere, indarrean dagoen legedira egokitzen den eta lizentziaren baldintza guztiak betetzen diren jakinarazi beharko du udal teknikariak. Bidean, eskatzaileak etxebizitzaren erroldatuta dagoela egiaztatzea beharko du hurrengo hamabost urteetan.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka.
Onuradunak / Hartzaileak	Zigoitia udalerriko eraikin jabeak diren pertsona fisikoak, udalerriko bizi badira. Eskatzaileak eskaera data baino bost urte lehenagotik egon beharko du udalerriko erroldatuta.
Zineko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	1522.780.000 Eraikinak birgaitzeko dirulaguntza.

ELKARTE ETA FUNDAZIOEI ERAKUNDE EKARPENA (EUDEL, UDALSAREA, EUSKAL FONDOA, EUSKO IKASKUNTZA, MAIRUELEGORRETA LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA) ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO AREA	
Helburu estrategikoak	Erakundeen arteko lankidetzeta eta elkartegintza sustatzea, interes komunak defendatzea aldera.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua. — 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; 17. artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Modu finantzarioan kolaboratzea erakunde hauekin: EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea, Udalsarea – Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Euskal Fondoa Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkartea, Eusko Ikaskuntza Euskal Ikasketen Sozietatea eta Mairuelegorreta Landa Garapenerako Elkartea; erakunde horiek beste erakunde batzuen aurrean Zigoitiko Udalaren interesak defendatu eta ordezkatzeta da helburua, eta elkarre horiek udalerrii eskaintzen dizkieten zerbitzuen onuradun izatea, besteak beste, aholkularitza, prestakuntza, erakunde ordezkaritza, etab.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: Eudel: 1300 euro Udalsarea: 325 euro Euskal Fondoa: 700 euro Eusko Ikaskuntza: 200 euro ADR: 2.100 euro 2019: Eudel: 1300 euro Udalsarea: 325 euro Euskal Fondoa: 700 euro Eusko Ikaskuntza: 200 euro ADR: 2.100 euro 2020: Eudel: 1300 euro Udalsarea: 325 euro Euskal Fondoa: 650 euro Eusko Ikaskuntza: 250 euro ADR: 2.100 euro Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Urteko udal aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa jasoko dira.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Diruz lagundutako erakundeak ezinbestean aurkeztu beharko du emandako kopuruei eta egindako gastuei buruzko justifikazio memoria.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe.
Onuradunak / Hartzaileak	EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea, Udalsarea –Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Euskal Fondoa Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkartea, Eusko Ikaskuntza Euskal Ikasketen Sozietatea eta Mairuelegorreta Landa Garapenerako Elkartea
Zineko berdintasunari begirako jarduketan aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	912.481.000: elkarre edota fundazioientzako kuotak 414.421.000 garapen-elkarteentzako transferentziak

UDALAREN TITULARTASUNEN MERKATARITZA-LOKALA ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO AREA	
Helburu estrategikoak	Tokiko merkataritzaren eta enplegu sorreraren sustapena.
Ukitutako eskumen areak	— Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1.i) artikulua. — Euskadiko toki erakundeetako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.25) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Zigoitiko udalerriko tokiko merkataritza berreskuratzea, pertsonen eta/edo enpresen fluxua sortzen duten merkataritza- edo enpresa-jarduerak berriak instalatuz eta enplegua sortuz eta finkatuz. Errentak zenbatekoaren ehuneko 50eko hobaria izango du, soilik errentamendu-kontratuaren indarraldiko lehen 3 urteetan.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2019-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2019: 1379,40 euro. 2020: 1379,40 euro. Hala ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, aurrekontu-esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Deialdiaren oinarriak Gopegiko Urisolo kaleko 4b-behea ezkerrean (5. poligonoa, 897 katastro-partzela) den udal-titulartasuneko hiri-ondasun higiezinaren errentamendua lizitatzeko administrazio-klausula berezien pleguan daude jasota.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Errentamenduen zenbatekoa 2.758,80 euro da urtean, BEZa barne. Hilean, beraz, 229,90 euro da, BEZa barne. Errenta hilerako ordainduko da, hila bakoitzeko lehen zazpi egunetan. Kontratuaren indarraldiko urte bakoitzean eguneratuko da, eguneratze bakoitzaren dataren aurreko 12 hilabeteetako dagokien Kontsumoko Prezioen Indizearen Indize Orokor Nazionalaren urteko aldaketaren arabera. Errentak zenbatekoaren ehuneko 50eko hobaria izango du, soilik errentamendu-kontratuaren indarraldiko lehen 3 urteetan. Diru-laguntza honen helburua da alokairuari dagokion gastua finantzatzeko laguntzea, lokala zuzenean merkataritza- edo enpresa-jarduerak bat burutzera zuzentzen denean.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Lehia bidezko norgehiagoka-prozedurako emakida.
Onuradunak / Hartzaileak	Merkataritza-lokalaren errentaria.

UDALAREN TITULARTASUNEN MERKATARITZA-LOKALA ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA ALKATETZA, EKONOMIA, HIRIGINTZA ETA FUNTZIO PUBLIKOKO AREA	
Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	Errentamendu-kontratuaren esleipen-irizpideetan puntu bat emango zaie titularra emakumezkoa den jardueraren proiektuei. Bi jardueraren proiektuak lortutako guztizko puntuazioaren berdinketa gertatuz gero, positiboki diskriminatutako dira emakumeak buru dituzten proiektuak. Berdinketa sexu bereko pertsonen jardueraren proiektuen artean gertatuz gero, 1. atalean (Jardueraren proiektua eta bideragarritasuna) lortutako puntuazioa lehenetsiko da. Irizpide hori aplikatu ondoren ere berdinketa emango balitz, aurkeztutako eskaintzak iritsi diren hurrenkera hartuko da kontuan.
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	241.480.000

DANTZA ETA MUSIKA PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZA EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUNE, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA AREA	
Helburu estrategikoak	— Kultura jarduna eta musika eta dantza prestakuntza sustatzea. — Herritar guztiek kulturara sarbidea izatea erraztea, kultura ohiturak bultzatuz. — Sortzaileei laguntza ematea, udal sormen sarea indartuz eta sortzaileak ugaritzeko testuinguru egokia ahalbidetuz.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.l) eta m) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) eta 20) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: lankidetzan aritzea Dominizubi Musika Elkartea eta Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin, Zigoitiko udalerrian dantza eta musika prestakuntza sustatuz eta prestakuntza programak finantzatzuz. Eraginak: Zigoitiko herritarren dantza eta musika prestakuntza areagotzea, eta gizarte kohesioa sustatzea.
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: 48.000 euro (Dominizubi Musika Elkartea) / 7.500 euro (Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea). 2019: 48.000 euro (Dominizubi Musika Elkartea) / 7.500 euro (Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea). 2020: 47.982,09 euro (Dominizubi Musika Elkartea) / 3.170 euro (Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea). Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Urteko aurrekontuan Zigoitiko udalerrian dantza eta musika prestakuntza sustatzen duten sektore elkartearen aldeko dirulaguntza izendunak jasoko dira.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Erakunde onuradunek egindako jarduerak eta lortutako helburuak azaltzeko memoria aurkeztu beharko dute. Adierazle hauek kontuan hartuko dira: — Prestakuntza ikastaroetan parte hartu duten ikasle kopurua, urteko. — Musika tresna motak, zeinei buruz eskolak ematen baitira, eta musika tresna bakoitza ikasteko aurkeztzen den ikasle kopurua. — Udalerrian garatutako dantza, kultura edo musika ekitaldi publikoen kopurua, erakunde onuradunek parte hartu badute. — Elkarrekin sustatutako sormen ekimenak.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe
Onuradunak / Hartzaileak	Dominizubi Musika Elkartea eta Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea
Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	333.481.002: Dominizubi Musika Elkartea 333.841.003: Oketa Alai Dantza Taldea Elkartea

KULTURA ETA KIROLA SUSTATzea EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUNE, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA AREA	
Helburu estrategikoak	— Udalerriko elkartearen sarea sustatzea. — Udalerri barruan kirol eta kultura jarduerak garatzea sustatzea. — Gizarte ongizatea sustatzea. — Herriko ohiturak berreskuratzea bultzatzea
Ukitutako eskumen areak	— Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.l) eta m) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) eta 20) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: udalerriko kontzejuek, kultura eta kirol elkarteek egindako kultura eta kirol proiektuak partzialki finantzatzea. Eraginak: kultura, kirola, herritarren parte hartzea eta gizarte kohesioa sustatzea.
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: 49.000 euro. 2019: 49.000 euro. 2020: 35.000 euro. — Udalak programen kostuaren ehuneko 80 finantzatzeko du gehienez, eta udal interes berezia daukaten programen kasuan ehuneko 100era irits daiteke. — Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Urtero, urte hasieran, urteko deialdia egingo da erakunde onuradunek kultura eta kirol jarduerak garatzeko finantzaketa izan dezaten.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Erakunde onuradunek egindako jarduerak eta lortutako helburuak azaltzeko memoria aurkeztu beharko dute. Adierazle hauek kontuan hartuko dira: — Udal erregistroan jasotako elkarte kopurua eta horietatik zenbatek lortzen duten dirulaguntza. — Dirulaguntza jaso duten erakundeek garatutako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua. — Jardueraren kostua parte hartzaile bakoitzarekin konparatzen duen ratioa

KULTURA ETA KIROLA SUSTATZEA EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUNE, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA AREA	
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka
Onuradunak / Hartzaileak	— Legez eraturako eta Zigoitiko Elkartearen Udak Erregistroan zuzen inskribaturako irabazi asmorik gabeko erakundeak, publikoak edo pribatuak. — Irabazi asmorik gabeko erakundeak, Zigoitiko udalerria jarduteko eremu gisa daukatenak, nahiz eta egoitza soziala ez izan udalerri horretan. — Zigoitiko udalerriko kontzejak.
Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	Lehenetsia emango zaie gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten jarduerak edo ekintzei, eta pertsona behartsuenen edo gizartearen baztertuta geratzeko arriskuan dauden parte hartzea eta gizarteratzea sustatu edo bermatzen dituztenei
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	334.481.001: kultura jarduerak 341.481.000: kirol jarduerak

EUSKARA IKASTEA ETA EUSKARA EZAGUTU ETA IKASTEA SUSTATZEKO PROIEKTUAK EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUNE, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA AREA	
Helburu estrategikoak	— Herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko daukaten eskubidea bermatzea. — Euskararen erabilera sustatzea bizitzaren esparru guztietan
Ukitutako eskumen areak	— 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; 7. artikulua. — 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa; 5. eta 26. artikulua eta horiekin bat datozenak.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: — Herritarren eguneroko bizimoduaren esparru desberdinetan euskara ezagutzea eta ikastea sustatuko duten ekimenei finantzaketa ematea. — Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegi batean edo Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikulatuta dauden ikasleei ikasteko bekak ematea. Eraginak: euskararen erabilera sustatzea bizitzaren esparru guztietan.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da. 2018: 11.400 euro. 2019: 11.400 euro. 2020: 9.600 euro.
Ekintza plana	Urte hasierako urteko deialdia egingo da euskara ikasteko ikastaroak egin dituztenek edo euskara ezagutzea sustatzeko proiektuak bultzatu dituztenek finantzaketa eskatzeko aukera izan dezaten. Urteko aurrekontuan dirulaguntza izendun bat jasoko da Arabagara Euskaldunon Elkarguneen Federazioak sustatutako mintzalagun programa finantzatzeko
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Planaren indarraldiaren amaieran memoria bat egin beharko da, eta udalerrian euskara erabiltzea sustatzeko dirulaguntzen eragina aztertuko da bertan. Adierazle hauek kontuan hartuko dira: — Dirulaguntza eskatzen duten ikasleen kopurua. — Emakida kopurua. — Uko kopurua eta horretarako arrazoiak. — Guztira emandako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa. — Euskara ikastea eta parte hartzea errazten duten proiektuen eskaera kopurua
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka beste proiektu sustatzaile batzuen eta ikasteko beken kasuan. Zuzeneko dirulaguntza, izenduna, hitzarmenarekin, Arabagara Euskaldunon Elkarguneen Federazioarekin (mintzalagun programa).
Onuradunak / Hartzaileak	Euskara ikasteko, pertsona fisikoek betekizun hauek bete beharko dituzte: — Zigoitiko udalerrian errolatuta egotea ikastaroa hasten denean eta hala segitzea amaitu arte. — 16 urte beteta edukitzea ikastaroan izena ematean. — Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegi batean edo Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikulatuta egotea. — Gutxienez ikastaroko orduen ehuneko 80an izatea. Euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuetarako dirulaguntzak: — Euskara sustatzen duten irabazteko asmorik gabeko entitateak, nahiz eta euskara sustatzea ez izan entitatearen xede nagusi bakarra, baldin eta entitatearen jardunak Zigoitiko udalerriari eragiten badio, egoitza bertan ez eduki arren. Mintzalaguna programa finantzatzeko, Arabagara Euskaldunon Elkarguneen Federazioa.
Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	335.480.000: bekak eta proiektuak: 6.000 euro. 335.481.001: mintzalagun programa: 900 euro.

UDALERRIKO HERRIETAKO ZAINDARIEN JAIK EDOTA ERROMERIAK SUSTATZEA EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUNE, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA AREA	
Helburu estrategikoak	— Herriarrek parte hartu dezaten herriko jaiak antolatzen eta horietaz gozatzen. — Elkarbizitza aberasten laguntzen duten jolas eta kultura jarduerak egitea sustatzea.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.l) eta m) artikulua
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: kontzejuekin kolaboratzea, zaindarien jaietan garatutako jarduerak ludiko eta kultura jardueren gastuak finantzatzeko, betiere herriarrek, oro har, parte hartu eta gozatzen badute. Eraginak: parte hartzea eta gizarte kohesioa bultzatzea
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: 20.000 euro. 2019: 20.000 euro. 2020: 20.000 euro. Dirulaguntza eskatzen duten kontzejuek gehienezko kopurua jaso ahaliko dute, aurrekontua aplikatuz homidura eskatzaileen artean zati berdinetan banatuz hala badagokio; inolaz ere ezingo da justifikatutako gastuaren ehuneko 100 baino gehiago diruz lagundu. Hala ere, atal honetan aurreikusitako.
Ekintza plana	Urteko deialdia egingo da.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Planaren indarraldiaren amaieran memoria bat egingo da, eta honako adierazle hauek aintzat hartuko ditu: — Jardueretara bertaratutako kopurua. — Jaien programazioan jasotako jarduerak ludiko eta kultura jardueren kopurua.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka.
Onuradunak / Hartzaileak	Zigoitiko Kontzejuek
Zineko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	338.434.000

HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT ETA HAIEN FAMILIENTZAT ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK ANTOLATZEN LAGUNTZEA EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, INGURUNE, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARBIZITZA AREA	
Helburu estrategikoak	— Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak osagarriak antolatzen laguntzea.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.l) eta m) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) eta 20) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	— Zigoitiko Gorbeia Eskolako Gorbea Guraso Elkarteak ikasleentzat eta haien familientzat antolatzen dituen eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak osagarriak partzialki finantzatzea. Eraginak: Familiei erraztasunak ematea ikasleek eskola ordutegitik kanpoko jarduerak egin ditzaten.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018/2019 2019/2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2019-2020 ikasturtea: 8.500 euro (Gorbeia Eskolako GE).
Ekintza plana	Urteko aurrekontuan dirulaguntza izenduna jasoko da, Gorbeia Eskola HLHIko guraso elkartearentzat. Ikasturte bakoitzaren hasieran, elkarteek ikasturteko programa eta haren aurrekontua aurkeztuko dituzte.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Erakunde onuradunek egindako jarduerak eta lortu nahi diren helburuak azaltzeko memoria aurkeztu beharko dute. Ikasturtea amaitzean, erakunde onuradunek agiri hauek aurkeztuko dituzte: — Jarduera memoria (alderdi hauek jasoko ditu: partaide kopurua, bertaratzea, hezkuntza, iraupena, eta abar). — Memoria ekonomikoa (alderdi hauek jasoko ditu: gastuak, sarrerak, fakturak eta ordainagiriak).
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe.
Onuradunak / Hartzaileak	— Gorbeia Eskolako Gorbea Guraso Elkarteak
Zineko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	334.481.004

GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO ETA PROIEKTU ETA EKIMEN SOLIDARIOETARAKO LAGUNTZA KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Bazterketa ekonomiko, politiko edo sozialak gogorren jotako komunitateek bizi baldintza duinetara sarbidea izatea sustatzea. — Garapenerako lankidetzaren aldeko ekimen eta proiektu solidarioei laguntzea
Ukitutako eskumen areak	— Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.14) eta 37) artikulua. — 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Elkarkei buruzkoa — 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: garapenerako lankidetzako eta ekintza humanitarioari urteko proiektuak finantzatzea, bai eta GKEen jarduerak. Eraginak: bazterketa ekonomiko, politiko eta soziala pairatzen duten komunitateen bizi baldintzak hobetzea.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018: urteko aurrekontuaren diru sarreraren ehuneko 0,7 2019: urteko aurrekontuaren diru sarreraren ehuneko 0,7 2020: urteko aurrekontuaren diru sarreraren ehuneko 0,7 Proiektu horiek zenbait erakundek kofinantzatzen dituzte
Ekintza plana	Urteko aurrekontuan Euskal Fondoak eta beste erakunde batzuek bultzatutako proiektu solidarioen aldeko dirulaguntza izendunak jasoko dira.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Erakunde onuradunek egindako jarduerak eta lortutako helburuak azaltzeko memoria aurkeztu beharko dute.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe.
Onuradunak / Hartzaileak	Garapenerako GKEak, lankidetzako proiektuak kudeatzen dituzten erakundeak, Euskal Fondoak eta Zapareak Solidario Garapenerako Elkartea, Jambo Congo, Bultzain, Asociación de Desarrollo Social destino Gambia.
Zinezko berdintasunari begirako jarduketuen aurreikuspena	— Diskriminazioa eragiten duten proiektuen bazterketa. — Aukera berdintasuna sustatzen duten proiektuen balorazioa.
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	231.481.000

BIDELAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEENTZAKO GARRAIO-GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Umeek Bidelaguna programan parte hartzeko aukera erraztea, Murgia BHI eta Durana BHI zentroetan Bidelaguna eskola-laguntzarako programan parte hartzen duten Zigoitiko ikasleen garrarioaren finantzazioaren bidez. — Desberdintasunak orekatu dituen prebentziozko hezkuntza sustatzea, umeen gizarte-integrazioarako eskubidea bermatzea, eta Zigoitiko ume guztiei hezkuntza-sare publikorako sarbidea bermatzea.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.e) eta m) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.14) eta 36) artikulua. — Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 22. eta 46. artikulua. — Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 42.6 artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	— Bidelaguna programan parte hartzeko behar den garrarioa finantzatzea, desberdintasunak orekatzeko eta prebentziozko hezkuntza sustatzeko. Eraginak: Familiei erraztasunak ematea laguntza akademikoko jarduerak egiteko.
Denbora tarte / Lortzeko beharrezko epea	2018/2019 2019/2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzazio iturriak	2018-2019 ikasturtea: 2.000 euro, Udaren 2019ko aurrekontuaren kuntura (Murgia BHIa GE) 2019-2020 ikasturtea: 2.000 euro (Murgia BHIa GE) eta 2.000 euro (Durana BHIa Guraso Elkartea).
Ekintza plana	Urteko aurrekontuan dirulaguntza izendunak jasoko dira, Murgia BHIa eta Durana BHIa guraso elkarkeentzat. Ikasturte bakoitzaren hasieran, elkarkei ikasturteko programa eta haren aurrekontua aurkeztuko dituzte.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Erakunde onuradunek egindako jarduerak eta lortu nahi diren helburuak azaltzeko memoria aurkeztu beharko dute. Ikasturte amaitean, erakunde onuradunek agiri hauek aurkeztuko dituzte: — Jarduera memoria (alderdi hauek jasoko ditu: partaide kopurua, bertaratzea, hezkuntza, iraupena, eta abar). — Memoria ekonomikoa (alderdi hauek jasoko ditu: gastuak, sarrerak, fakturak eta ordainagiriak).
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe.
Onuradunak / Hartzaileak	— Murgia BHIa BHIa Guraso Elkartea — Durana BHIa Iturriberoko Guraso Elkartea
Zinezko berdintasunari begirako jarduketuen aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	231.481.001 231.481.002

EGUZKI JAIA PILOTA ERAKUSTALDIAN PARTE HARTZEN DUTEN KIROLARIENTZAKO SARIAK KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Kirola egitea sustatzea — Kultur eta kirol gertaerak sustatzea — Herriarren parte hartzea bultzatzea.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.l) eta m) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) eta 20) artikulua
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: Eguzki Jaia jaialdian antolatzen den pilota erakustaldian parte hartzen duten kirolariei sariak ematea. Eraginak: parte hartzea sustatzea eta kirol tradizionala bultzatzea
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzio iturriak	2018: 2.400 euro. 2019: 2.400 euro. 2020: 2.000 euro. Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Urteko udal aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa jasoko dira.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Areako zinegotzi atal arduradunak parte hartzaileen eta emandako sarien ziurtagiria jasoko du.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe.
Onuradunak / Hartzaileak	Ekitaldian parte hartzen duten kirolaria.
Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	341.480.000

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Oinarrizko premiei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez duten pertsona eta familiei laguntzea. — Premian dauden pertsonen laguntzea, garapen aukeretan berdintasuna errazten duten baliabideak eskainiz. — Behar beste baliabide ekonomiko ez izateak dakartzen ondorio fisiko, psikiko eta sozialak prebenitzea eta saihestea, horrek pertsonen gizarte jarduteko duten jokabide arruntari.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.e) artikulua. — 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. — 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, diru sarrerak bermatu eta gizarteratzei buruzkoa eta horren ondoriozko araudia garatzen duena. — 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa. — 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdiko Laguntzak arautzen dituena.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	— Oinarrizko premiak betetzea: elikagaiak, jantziak... ekonomia eta laguntza arloko prestazioen bidez. — Etxebizitzaren eskuragarritasuna, haren mantenimendua eta pobrezia energetikoko egoeren prebentzioa bermatzeko prestazio ekonomikoak. — Helburu horiek izan arren, sistema publikoek estaltzen ez dituzten hezkuntza eta osasun artapeneko premiei erantzuteko prestazio ekonomikoak.
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzio iturriak	2018: 500 euro. 2019: 500 euro. 2020: 1.000 euro. Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Prestazioak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aztertzen dira. Prestazioen ezaugarriak eta denbora aldia araudian ezarritako irizpideei eta balorazio profesionalen ondorioei dagozkie.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Premia egoerak irizpide profesionalen arabera baloratzen dira. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek jarraipena egingo dute, prestazio horien mendekotasuna saihesteko eta, hala, aldezakoa ez izateko eta salbuespenekoa izateko izaerari erantzunez.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzena, izenduna, hitzarmenik gabekoa.
Onuradunak / Hartzaileak	Prestazio bakoitzean jasotako premia zehatzei aurre egiteko ahultasun ekonomikoko egoeretan dauden pertsonak eta familiak, indarreko arautegian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ahultasun eta premia egoerak profesionalki baloratzen dira.
Zinezko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	231.480.000 Gizarte Larrialdiko Laguntzak

ESPETXE ARAUBIDEAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEN JOAN-ETORRIETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOA KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Partaidetza eta gizarteratzea sustatzea. — Herriarren bizi baldintzak hobetzea, bereziki gizarte bazterketa edo pobrezia pairatzeko arrisku handiagoa daukaten komunitateetako herritarrena.
Ukitutako eskumen areak	— Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.5 artikulua. — Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.e) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	— Arabako Lurralde Historikotik kanpoko espetxeetan dauden pertsonak bisitatzea (hala zigoritutakoak edo prebentzio modura espetxeratutakoak) aski baliabide ez daukatela egiaztatzen duten senideen joan-etorriak partzialki diruz laguntzea, familia harremanei eusteko eta espetxeak dakarren gizarte bazterketako ondorio amplifikadorea murrizteko. — Harreman eta loturen eskuragarritasuna sustatzea, gizarte babesa jasotzea, pertsonaren oinarriko beharrianak betetzeko eta bizikidetzatza, pertsona eta familia mailako harreman egokiei
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta fintzazio iturriak	2018: 7500 euro 2019: 5000 euro 2020: 5000 euro Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Dirulaguntza lortu ahal izateko, eskatzaileak egiaztatu egin beharko du espetxean dagoen pertsonarekin familia lotura duela eta aski baliabide ekonomikorik ez duela; horretarako, bizikidetzatza unitatearen diru sarrerak aurkeztu beharko ditu.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Planaren indarraldia bukatutakoan txosten bat egingo da, eta honako adierazle hauek aztertuko dira: — Eskara kopurua. — Emakida kopurua. — Uko kopurua. — Dirulaguntzaren batez besteko kopurua.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka.
Onuradunak / Hartzaileak	Preso dauden pertsonen senideak.
Zineko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	231.480.001 Zigoritutako pertsonen senideentzako laguntzak

ZIGOITIKO HAUR ESKOLAN MATRIKULATUTAKO HAURRAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO DIRULAGUNTZAK KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Desberdintasunak orekatzeko eta prebentzioko hezkuntza sustatzea. — Haur guztiek gizartearen erabat integratzeko daukaten eskubidea bermatzea. — Haur guztiek hezkuntza sare publikora sarbidea daukatela bermatzea.
Ukitutako eskumen areak	— Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 17.1.14 artikulua. — Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.e) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.14 artikulua. — 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: haurrak Haurreskolak Partzuergoko Zigoitiko udal haur eskolan matrikulatzeko prezioa partzialki finantzatzea. Eraginak: Zigoitiko udal haur eskolan matrikulatzea sustatzea, zailtasun ekonomikoak dituzten familiek eta eskola adineko populazioak hezkuntza publikora sarbidea izatea bermatzeko.
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2018-2020
Aurreikusten diren kostuak eta fintzazio iturriak	2018: 2000 euro 2019: 2000 euro 2020: 3000 euro Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena onartu behar da.
Ekintza plana	Urteko deialdiak egingo dira, lehia askean, eta ikasturtea bukatu ondoren familiek laguntzak eskatu ahalgo dituzte.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Zigoitiko Gorbeia Haurreskolako matrikulazioa egiteko laguntzen eragina aztertuko duen txostena egin beharko da, aldizka. Bereziki honako adierazle hauek aztertuko dira: — Eskara kopurua. — Emakida kopurua. — Uko kopurua.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Norgehiagoka.
Onuradunak / Hartzaileak	Haurreskolak Partzuergoko kide den Zigoitiko udal haur eskolan matrikulatutako seme edo alabaren zaintza eta jagoletza daukaten pertsonak, seme edo alabarekin batera errolatuta ageri direnak. Banaketa, dibortzio edo deuseztasun kasuetan, zaintza eta jagoletza partekatua denean, elkarrekin errolatuta egoteko betekizun hori alde batera utziko da; kasu horietan, adingabea zaintza eta jagoletza daukan pertsonen arteko edozeinekin egon ahalgo da errolatuta. Bidenabar, diruz lagundutako jardueraren iraupen osoan zehar errolatuta egoteko beharrian zegoen salbuespena ezarri da genero indarkeriaren biktima izan diren edo diren amen seme-alaben kasua.
Zineko berdintasunari begirako jarduketaren aurreikuspena	Batera errolatuta egon beharra alde batera utziko da genero indarkeriaren biktima izan diren edo diren amen seme-alaben kasuan. Dirulaguntzak ematerakoan genero indarkeriaren biktima izan diren edo diren amen seme-alabei lehentasuna emango zaie.
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	231.480.002 Zigoitiko Gorbeia haur eskolan seme-alabak dituzten familientzako laguntzak.

GORBEIAKO PARKE NATURALEAN PROSPEKZIO ARKEOLOGIKOAK EGITEKO ANALITIKAK KIROLA, GIZARTE ONGIZATE, KOOPERAZIOA, NEKAZARITZA ETA MENDI AREAK	
Helburu estrategikoak	— Udalerriko natura eta historia ondarea babesten eta zaintzen laguntzea.
Ukitutako eskumen areak	— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.m) artikulua. — Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.21) eta 20) artikulua.
Aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta eraginak	Helburua: Gorbeia Parke Naturalean, natura eta historia-ondarearen arkeologia-analisia sustatzea. Eragina: udalerriko historia eta baso-ondarea babestea.
Denbora tartea / Lortzeko beharrezko epea	2019-2020
Aurreikusten diren kostuak eta finantzio iturriak	2019: 3.000 euro. 2020: 5.500 euro. Hala ere, atal honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko aurrekontu esleipena.
Ekintza plana	Urteko udal aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa jasoko da.
Jarraipen eta ebaluazio araubidea	Erakunde onuradunak, sustatu den historia eta baso ondarearen memoria aurkeztuko du, bai eta memoria ekonomikoa ere; azken horri erantsi beharko zaizkio egindako gastuen fakturak, diru sarrera publiko zein pribatuen frogagiriak eta ordainketa nahiz kobrantzen egiaztagiriak.
Dirulaguntzak emateko araubidea	Zuzeneko emakida, izenduna, hitzarmenik gabe.
Onuradunak / Hartzaileak	Ángel Martínez Montecelo, Arkeologia, Ondare eta Lurralde Bulegoa (Arkeologia ikerketak Gorbeia Parke Naturalean) Amurrioko Aztarna Etnografia Elkartea (Artzaintza Gorbeian dokumentala).
Zinezko berdintasunari begirako jarduketan aurreikuspena	
Kredituaren zainpeketa jasotzen duen aurrekontu aplikazioa	336.471.000 334.471.000

Ondategin, 2020ko otsailaren 6an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA